

# SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

## 15. BILERA AKTA

EGUNA: AZAROAK 7, LARUNBATA

ORDUA: 9:30

TOKIA: HERRIKO ETXEKO PLENO ARETOA

### BERTARATUAK

GURE ARRANO ELKARTEA  
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA TANTIRUMAIRU IKASTOLA  
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA  
IRAIN GURASO ELKARTEA  
GEROA BAI UDAL TALDEA  
MAIRU ANTZERKI TAILERRA  
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA  
LESAKAKO EUSKARA BATZORDEA  
S.C.R.D. BETI-GAZTE K.J.K.E.  
LESAKAKO ABESBATZA  
MUSIKA ESKOLA  
LESAKAKO MUSIKA BANDA  
LESAKAKO SOINULARIAK  
LESAKAKO TXISTULARIAK  
ELUTXA TXARANGA

Bilera hasi aurretik zergatik ez den Harriondoan egiten aipatzen da. Pandemia garaian espazio eta bertzelako arazoengatik udal pleno aretora aldatu zen eta momentuz horrela jarraitu da. Zumarra gela egokiagoa ikusten da, pantaila badago ...aurrerantzean Harriondo Kultur Etxean egitea adosten da.

### AINTZINAKO AKTA ONARTZEA

Onartzen da

### DIRULAGUNTZAK

Astelehenean bidaliko da deialdia. Iazko oinarriak mantentzen dira. Edozein zalantza, eskutitzan jartzen duen bezala, udalara deitu edo idatzi edo biltzeko aukera izanen da. Dirulaguntzen nondik norako pixkot azaltzen da, iazko sistema berdina izanen da, errepasso orokor bat ematen da iazko oinarriari. Aurrekontuak ahalik eta zehatzenak izatea eskatzen da, zintzotasunez eskatu, behar dena eskatu bino zintzotasunez, helburua denak kontent gelditzea da. 2020ko dirulaguntzen inguruan talde bilerak egin ziren eta hainbat gauza atera ziren bertan, hala ere edozein zalantza zuzenean udalara jotzeko aipatzen da.

Kultura eta kirola bi arlo desberdinak dira, beraz elkarte batek bi arlotako eskaera egin behar badu banatua egitea eskatzen da. Araudia kulturaren zentratua dago, kirola ere bertan sartzen da momentuz, kirolakoa zehaztasun gehiagorekin begitzea pendiente dago oraindik.

Kultura konpromezuan adostu bezala, aurtengo egoera dela eta elkarte guztiek guttieneko bat jasoko dute eta nahi izanez gero diruz lagundutako hori 2020an ez bada egin 2021eko apirila arte egin daiteke.

2020ko dirulaguntzak justifikatzeko epea abenduak 20 dela oroitarazten da.

### HARRIONDOA KULTUR ETXEKO ARAUDIA

Deialdiarekin batera berriz ere dagoen araudia bidali zen.

Udalatik aztertuko zela aipatu zen bino momentuz ez da ezer zehatzik egin, bai badaude irizpide orokor batzuk, adibidez:

- Herriko eragileen gastu teknikoak udalak hartuko ditu bere gain, badago partida berezi bat horretarako.
- Komentua ez da bakarrik erakusgela bezala erabiliko. Haur txokoa sortu zen bertan martxoa aldera, egungo egoera dela eta bertan behera gelditu zen bino udalatik bai erakusketa, bai haur txoko eta bai bertzelako gauzetako (kontzertuak, entsaioak...) erabiltzeko aukera ikusten da. Hori horrela erakusketak egiteko aukera murrizten dela aipatzen da, adibidez Beti-Gazte elkartearen argazki erakusketa. Hala ere momentuan kasu bakoitza aztertu eta bideratuko dela aipatzen da.

- Tasak, berrikusiko dira.
- Norbanako bi baimen berezi eman direla aipatzen da. Araudian elkarteak izan behar direla aipatzen du, bino hori ere berrikusiko da.

### **LIBURU XURIA**

18 elkartek bidali dute liburu xurirako testua. Irain Guraso elkarteak ez du bidali bino egokia ikusten da bertan egotea, Mainerrek berriro aipatuko du.

Ikastetxeak egotea arraroa ikusten dela aipatzen da. Honen inguruan ekosistema guztia sartzea dela helburua komentatzen da eta guraso elkarteak ere hor ikusten dira.

Hurrengo pausua norbaitek dena erreparatzea izanen da, itxura bateratu bat emateko.

Dokumenatu bizia izanen da. Paperean inprimituko da eta bertsio digitala ere izanen da web orrian zintzilikatuko dena. Digitala osatzen joanen da eta denbora batera ikusiko da berriro papereko ale berri bat atera edo ez.

### **AGENDA**

40.000 euroko partida bat zegoen emanaldietarako eta gutti gora behera 14.000 € geldituko lirateke urte bukaera arte.

Azkeneko bilgunean lau emanaldi aipatu ziren:

- Kea Ahots taldea, hauekin harremanetan jarri da Udala eta data zehazteke dago bino urte bukaera bino lehen etorriko dira.
- Komando Funk, Anderrek proposatutakoaren inguruan, azaroaren 21ean etorriko dira.
- Amak taldea: aurtengo bira bukatutzak eman dute eta hurrengo urtera begira aztertuko da.
- Ainara Ortega: momentuz ez du ikusten, udaberri aldera eta udako zikloan sartzeko modukoa ikusten du berak.
- Mairu Antzerki Tailerraren emanaldia abenduan.

Eguberrietarako haurrentzako bi emanaldi ekartzea pentsatu da, magoa, pailazoak, antzerkia...Ttipia Gipuzkoaren proposamenak aipatzen dira.

Olatzek berak parte hartzen duen hirukote bat aipatzen du. Bidaliko du informazioa.

Beti bezala, nerabeen kontua aipatzen da, nola ailegatu, zer ekarri....ETS taldearen informazioa eskatzea aipatzen da.